

2008-10-21eko EZOHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zortzigarren urteko urriaren hogeita batean, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohizko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Eugenio Loidi Garmendia jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna, Agustin Zubeldia Iraola jaunak.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute; Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak eta Aitor Lasa Olalde jaunak eta M^a Jesús Otaño Zumetak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENBIZIKO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (08/06/12; 08/07/21).

2008ko ekainaren hamabiko ezohizko eta 2008ko uztailaren hogeita bateko ezohizko saioen akten zirriborroak ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hauek onartzea.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

-2008-05-21eko 68/08 Dekretua: M^a Teresa Iturberi zigorra ezartzea eta 200 euroko isuna jartzea.

-2008-05-23ko 72/08 Dekretua: baliogabetzea, 2003-2004 eta 2005eko ekitaldi

ekonomikoen aurrekontua likidatzerakoan ondore gisara utzitako eskubideak.

-2008-05-27ko 73/08 Dekretua: Udal honetako langileen soldatak ehuneko lau igotzea.

-2008-05-30ko 74/08 Dekretua: Miren Edurne Sanchezek egindako obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-05-29ko 75/08 Dekretua: 2008ko 1. sehilabeteko Zabor bilketa tasari buruzko errolda onartzea.

-2008-05-30eko 76/08 Dekretua: Joxean Goyak egindako obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-06-03ko 77/08 Dekretua: Olivia Sanchez eta J.L. Longaronek emandako ikastaroei dagozkien fakturak ordaintzea.

-2008-06-03ko 78/08 Dekretua: Euskal Forging S.A. enpresak pabeloi inguruan pilatutako hainbat material kentzeko agindua.

-2008-06-03ko 79/08 Dekretua: Euskal Forgin S.A. enpresari agintzea, lizentziarik gabe aurrera eramaten ari den eraikuntza lanak berehala etetea.

-2008-06-06ko 80/08 Dekretua: Olivia Sanchez, J.L. Longaron eta Kristina Roperok emandako ikastaroei dagozkien fakturak ordaintzea.

-2008-06-11ko 81/08 Dekretua: Miren Arzuaga kontratatzea ekainaren 12 eta 13an egun erdiko jardunaldirako.

-2008-06-12ko 82/08 Dekretua: Santiago Romeok egindako obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-06-12ko 83/08 Dekretua: Aitor Olarrak egindako obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-06-13ko 84/08 Dekretua: Tolosaldea Garatzen S.A. izendatzea diru laguntza eskaera egiteko.

-2008-06-16ko 85/08 Dekretua: maiatzari dagozkion fakturak onartzea, 63.133,81.-€ko zenbatekoa osatzen dutelarik.

-2008-06-17ko 86/08 Dekretua: Aitor Rotetak egindako obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-06-19ko 87/08 Dekretua: 26 E-ei dagokien ethez etxeko laguntza zerbitzuaren gehikuntza onartzea.

-2008-06-20ko 88/08 Dekretua: Lantegui S.A.ri egindako obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-06-26ko 89/08 Dekretua: Euskal Forging S.A.ak egindako obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-06-26ko 90/08 Dekretua: 2008ko Goiza Pasa udalekuetako begirale lanetarako hainbat pertsona kontratatzea.

-2008-06-27ko 91/08 Dekretua: Iker Ugalde peoiaren lan-kontratuaren inguruko erabakitze prozesuan parte hartzeari uko egitea.

-2008-06-27ko 92/08 Dekretua: M. Jose Aizpuru, Iker Ugalde eta Lhou Ouahzizi langileak beste 6 hilabetez kontratatzea.

-2008-06-27ko 93/08 Dekretua: Iker Ugalde ta Lhou Ouahziziren aparteko orduen ordainketa.

-2008-07-03ko 94/08 Dekretua: Bulego orokorretako lanak arintzen lagunduko duen pertsona baten kontratazioa agintzea.

-2008-07-03ko 95/08 Dekretua: 131 eta 135 E-ei dagokien gizarte larrialdiko laguntza onartzea.

-2008-07-15ko 96/08 Dekretua: M^a Teresa Martinei %50eko hobaria aplikatzea r ziri-enkaje ikastaroetan.

-2008-07-15eko 97/08 Dekretua: Naturgas Energiak aurkeztu duen fakturazioaren arabera, udal jabari publikoaren erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatik tasa ordainaraztea.

-2008-07-15eko 98/08 Dekretua: Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko zerga ordaintzetik salbuestea Marciano Vinuesa.

-2008-07-15eko 99/08 Dekretua: Construcciones Ugarte SL-ri fidantza itzultzea.

-2008-07-16ko 100/08 Dekretua: Irurako Ikastolari 7.212 €ko dirulaguntza ematea.

-2008-07-17ko 101/08 Dekretua: 2007ko aurrekontuaren likidazioa onartzea.

-2008-07-23ko 103/08 Dekretua: Arau Subsidiarioetako 16. zonaldearen behin behineko onarpena.

-2008-07-23ko 104/08 Dekretua: Antton Gabellanek obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-07-24ko 105/08 Dekretua: Herri Irakaskuntza Mankomunitatearen

likidazio prozesuan 8.000 €-ko ekarpena egitea.

-2008-07-24ko 106/08 Dekretua: Garmendia Palacios Eraikuntzak enpresari esleitzea eskola zaharraren eraikinean, eskola-beharretara egokitzeko

-2008-08-14ko 108/08 Dekretua: ekainari dagozkion fakturak onartzea, 63.133,81.-€-ko zenbatekoa osatzen dutelarik.

-2008-08-14ko 109/08 Dekretua: 113 E-ei dagokien gizarte larrialdiko laguntza onartzea.

-2008-09-03ko 110/08 Dekretua: M^a Elena Gabarain aukeratzea administrari laguntzaile lanetarako.

-2008-09-03ko 111/08 Dekretua: Irurako Ikastolari Zillar Kalea 4ean Irakaskuntza jarduera instalatzeko baimena ematea.

-2008-09-03ko 112/08 Dekretua: Euskal Forging S.A.ak egindako obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-09-03ko 113/08 Dekretua: Euskal Forging S.A.ak egindako obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-09-09ko 114/08 Dekretua: uztailari dagozkion fakturak onartzea, 147.167,99.- €-ko zenbatekoa osatzen dutelarik.

-2008-09-10ko 116/08 Dekretua: Mecanizados Harri S.L.ek egindako jarduera lizentzia aldeko izaerarekin informatzea.

-2008-09-11ko 117/08 Dekretua: Trainelec S.L.-ek egindako zabaltze baimena ematea.

-2008-09-11ko 118/08 Dekretua: Jose Miguel Garmendia kontratatzea osasun zentroko pasilloa zabaltzeko lana egiteko.

-2008-09-11ko 119/08 Dekretua: Euskara arloko dirulaguntzak ematea hainbat ikasleei.

-2008-09-11ko 121/08 Dekretua: 2008ko jaien gastuen aurrekontua onartzea.

-2008-09-11ko 122/08 Dekretua: M^a Milagros Barrenechearen obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-09-11ko 123/08 Dekretua: herriko kale, plaza etb.-etako garbitze lanak egiteko errefortzu gisa, langileak kontratatzea.

-2008-09-11ko 124/08 Dekretua: Construcciones Fresnedarekin hitzarmena kale

eta gune batzuk egokitzeko.

-2008-09-30ko 127/08 Dekretua: Erantzunkizun espedientea hasia batzuen kontra, pilotalekuaren lehen faseko obragatik.

-2008-09-30ko 128/08 Dekretua: Irurako Ikastolari Kilometroak-08 ospatzeko hainbat baldintzekin baimena ematea.

-2008-09-30ko 129/08 Dekretua: herritarren mugikortasun iraunkorra sustatzeko proiektua onartzea.

-2008-09-30ko 130/08 Dekretua: Kikilau S.L.-ri 16 etxebizitzako eraikina eta garajeak egiteko Exekuzio proiektua onartzea.

-2008-09-30ko 131/08 Dekretua: abuztuari dagozkion fakturak onartzea, 10.640,81.- €-ko zenbatekoa osatzen dutelarik.

-2008-10-02ko 132/08 Dekretua: M^a Milagros Barrenechearen obra baimen eskaera ez onartzea.

-2008-10-09ko 133/08 Dekretua: J.L. Longaron eta Kristina Roperok emandako ikastaroei dagozkien fakturak ordaintzea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARREN GAIA

ALKATEAREN 125/08KO DEKRETUA BERRESTEA, ARRETA ZERBITZUAK S.L.-REKIN DAUKAGUN KONTRATUA DESEGITEKO, HALA BADAGOKIO..

“Alkatearen 125 zka.dun 2008ko irailaren 26ko dekretuaren berri ematen da:

Irurako Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua Arreta Zerbitzuak, S.L. enpresari esleitu zitzaion, Udalbatzak halaxe erabaki baitzuen 2006ko irailaren 27an egindako bileran. Kontratua 2006ko abenduaren 29an izenpetu eta 2007ko urtarrilaren 1ean hasi zen gauzatzen.

Horiek horrela eta txostenak aztertu ondoren,

Indarrean dagoen legedian ezarritako eskumenekin bat etorritz,

HAUXE ERABAKI DUT:

Bat.-Udalak Arreta Zerbitzuak, S.L. enpresarekin duen etxez etxeko

laguntza zerbitzuaren kontratuaren amaiera iragartzea. Hartara, kontratua 2008ko abenduaren 31n amaituko da.

Bi.-Nolanahi ere, esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du hitzarmen berria esleitu bitartean eta gehienez ere 2009ko ekainaren 30 arte.

Hiru.-Dekretu honen berri Udaltzari ematea, egingo duen lehen bileran, hala badagokio, berresteko.”

Hori dela eta udalbatzak aho batez berrestea erabaki du.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

LAUGARREN GAIA

GIPUZKOAKO DIPUTAZIOARI EGINDAKO “KIROL EKIPAMENDUEN PLANA 2008-2011” DIRU-LAGUNTZA ESKAERA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO

2008ko irailaren 18an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2008-2001 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planeko diru-laguntzak arautzeko oinarriak argitaratu dira. Hori dela eta udal honek honako proiektuak Plan horretan sartzea eskatu du:

- 1.- Trinketearen berrikuntza, 300.188.- €-ko aurrekontuarekin.
- 2.- Kirol askotarako Pista, 332.040,12 €-ko aurrekontuarekin.

Udalbatzak aho atez eskaera berrestea onartzen du.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

BOSGARREN GAIA

GIPUZKOAKO DIPUTAZIOARI EGINDAKO “i-gipuzkoa” PLANA DIRU-LAGUNTZA ESKAERA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO..

i-gipuzkoa 2010: udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko programan Udal honek laguntza hauek eskatu ditu:

1.- Eduki digitalak sortzea web orrian, 12.528.- €-ko aurrekontuarekin.

2.- Wifi instalazioen sorrera herritarren erabilerako, 6.516,88.- €-ko aurrekontuarekin.

Hori dela eta udalbatzak aho atez eskaera berrestea onartzen du.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

SEIGARREN GAIA

ALKATEAREN 115/08 DEKRETUA EUSKO JAURLARITZAREN JUSTIZIA SAILARI EGINDAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.

“Alkatearen 115 zka.dun 2008ko irailaren 3ko dekretuaren berri ematen da:

“Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuaren 2008ko ekainaren 25eko Aginduaren bidez, bake epaitegietako gastuei aurre egiteko udalenzako laguntzak iragarri eta arautzen dira.

Bake epaileak eta epaitegiko idazkariak idatzitako txostenaren arabera, aipatu zerbitzu horretarako informatikako ekipo berria eta inprimagailu-aparatuak lortzea komeniko litzatekeela erabaki da.

Horren aurrean, eta Toki-erregimenari buruzko arauak onartzen didaten eskuduntzen arabera,

ERABAKI DUT:

Lehena.- Onartzea Irurako bake epaitegirako diru-laguntza eskabidea, 2.047,40 euroko aurrekontua duena (BEZ barne) eta informatikako ekipo berria eta inprimagailu-aparatua lortzeko dena.

Bigarrena.- Honako erabaki honen berri ematea Udalaren Osoko Bilkurari, egingo duen lehenengo batzarraldian.”

Hori dela eta udalbatzak aho batez berrestea erabaki du.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren

aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

ZAZPIGARREN GAIA

EUSKAL FORGING S.A.-REKIN SINATUTAKO HIRIGINTZAKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza Legeak 2/2006ko, 7. xedapen gehigarrian xedatzen denaren arabera, Euskal Forging S.A. eta udal honen artean sinatutako hitzarmenaren berri ematen da.

2008ko irailaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da eta 20 eguneko epean jendaurrean egon ondoren ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori dela eta udalbatzak aho batez hitzarmen hau onartzea erabaki du

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

ZORTZIGARREN GAIA

2007KO IRURAKO UDALEKO AURREKONTU OROKORRAREN KONTU OROKORRA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak aho batez erabaki du udal honetako 2007ko ekonomia ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartzea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea, dagozkion ondorioetarako.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

BEDERATZIGARREN GAIA

SAN MIGEL PARROKIAREN LOKAL BATZUK ALOKATZEKO SINATU DEN KONTRATOA LUZATZEA, HALA BADAGOKIO.

San Migel Parrokiarekin lokal batzuk dauzkagu alokatuta, hitzarmena amaitu da eta aukera dago beste bost urte gehiagorako luzatzeko, akordio batetara

iritsiz gero.

Hori dela eta udalbatzak aho batez erabaki du, parrokiarekin elkarriketatzea hitzarmen hori luzatzeko. Ondoren udalbatzak lortutako akordio hori berretsi behar du indarrean jartzeko.

HAMARGARREN GAIA

ERNIOALDEA UDALTALDE 21-EN 2008KO BIGARREN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Tolosaldea Garatzenek, udal hau partaide izanik, Ernioaldea Udaltadea 21 i dagokion ekarpenaren likidazioaren bigarren ekarpena aurkeztu du, 6.834,15.- €koa.

Udalbatzak aho batez onartu du, Tolosaldea Garatzeni aipatutako kontzeptuengatik egin beharreko urteko ekarpenaren bigarren zatiaren ordainketa egitea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

HAMAIKAGARREN GAIA

2008KO IBILALDIAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusita maiatzaren 25ean Zornotzan egin zen Ibilaldia 2008 ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udalbatzak erabaki du aho batez 182.- €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMABIGARREN GAIA

2008KO HERRI URRATSEN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusita maiatzaren 11n Senperen egin zen Herri Urrats ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udalbatzak erabaki du aho batez 265.- €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMAHIRUGARREN GAIA

2008KO NAFARROA OINEZEN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusita urriaren 19an Iruñean egin zen Nafarroa Oinez 2008 ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udaltzak erabaki du aho batez 182.- €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMALAU GARREN GAIA

2008KO ARABA EUSKARAZEN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusita ekainaren 15ean Bastidan egin zen Araba Euskaraz 2008 ekitaldiaren diru-laguntza eskaera, Udaltzak erabaki du aho batez 182.- €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMABOSGARREN GAIA

TOLOSALDEKO GALTZAUNDIREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Udaltzak aho batez erabaki du Tolosaldeko Galtzaundi Euskara Taldeari 2.500 €-ko diru-laguntza ematea, 2008 urteari dagokiona. Horretarako, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorak ezarritakoaren arabera, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztagiria
- b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).
- d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMASEIGARREN GAIA

TXOLARRE IRRATIAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Udalbatzak aho batez erabaki du Txolarre Kultur Elkarteari 1.193.- €-ko diru-laguntza ematea, 2008 urteari dagokiona. Horretarako, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztagiria
- b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMAZAZPIGARREN GAIA

KONTXEILUAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak eskatzen du diru laguntza euskararen normalizazio prozesuan 2008ko ekitaldiak betetzeko.

Udalbatzak erabaki du aho batez 300.- €-ko diru-laguntza ematea eta ordaintzeari ekitea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HEMEZORTZIGARREN GAIA
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK PROPOSATZEN DUEN
HITZARMENA 2008-2011 BERRESTEA, HALA BADAGOKIO

Eskaera ikusita udalbatzak aho batez mahia gainean ustea erabakitzen du, gaia gehiago ikertzeko.

HEMERETZIGARREN GAIA
UEMAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Irurako udala UEMAKo kide da eta Elkarte honek jakinarazi dio 2008ko ekarpena 5.741.-€koa izango dela.

Hori dela eta udalbatzak ekarpena onartzea eta ordainketa egitea erabakitzen du.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 22:10etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.